

URKOME, Urola Kostako landa garapenaren alde lan egiten duen elkarte da, eskualdeko 11 udaletxeek eta 22 elkartek osatuta.

Urkomek, Eusko Jaurlaritzako 7/2022 Landa Ingurunearen Garapenaren legearen baitan osatzen den eskualdeko Landa Garapen programa du ardatz eta urtero onartzen da kudeaketa plana osoko bilkuran.

GURE ZERBITZUAK:

Urkomek eskeinitako zerbitzuak, landa eremuko biztanlegoaren bizi kalitatea hobetze aldera ematen dira.

KARPA ZERBITZUA: Urkomeko bazkideek erabilgarri dituzte.

LIZTOR BELTZA: Liztor beltza espezie inbaditzailearen habiak desaktibatzen ditugu.

PLASTIKO BILKETA: Hileko bigarren asteartean jasotzen da.

ARTILE BILKETA: Landaola, Abelur eta Lurgintzak elkarlanean antolatzen dugu urtean behin.



GURE PROIEKTUAK:

Zenbait proiektu eskualde mailakoak dira, beste hainbat berriz Gipuzkoa mailakoak.

Eskualde mailakoak:

EKOIZLEEN ON LINE GIDA: Urola Kostako ekoizleen inguruko informazioa aurkitzen da bertan.

AZOKEN DINAMIZAZIOA: Azkoitia, Azpeitia eta Zarauzko azoken dinamizazioa dagokion udalarekin elkarlanean.

Proiektu gehiago: www.orkome.eus



Gipuzkoa mailako proiektuak LANDAOLA (Gipuzkoako Landa Garapen elkarten Federazioa) bidez lantzen dira:

GIPUZKOAKO AZOKEN SAREA: Ekimenaren helburu nagusia Gipuzkoako herrietako azokak aztertu, indartu eta hauen etorkizuna bermatzea da.

LANDA EMAKUMEAK GARA: Landa eremuko emakumeen arteko elkar ezagutza eta saretzea sustatzea da.

LURRETIK MAHAIRA: Gipuzkoan, bidezko trantsizio ekologikoa bizkortzeko eredu berritzaileen eskalagarritasuna eta hedapena sustatu nahi da. Elikadura jasangarria eta kontsumo arduratsua sustatzeko akonpainamendu sistema bat antolatzeko helburua duen proiektu zabal bat da.

LANDAOLA SARIAK: Sariak landa garapeneko proiektuei errekonozimendua egiteko ematen dira.

LANDAN EKIN: Landa ekintzailatza eta sorkuntza egitasmoa da.

Informazio gehiago: www.landaola.eus



MENEKO: EAEko LANDA GARAPEN ELKARTEEN Federazioa da. Guztira hiru lurraldeetako 18 LGEk osatzen dugu.


MENDINET: Landa eremuaren garapenaren alde lan egiten duen irabazi asmorik gabeko entitatea da eta LEADER Europear diru laguntzak kudeatzeko tokiko ekintza taldea. MENDINET Euskadiko landa garapeneko 18 elkarteek eta HAZI Fundazioak osatzen dute.

AHOLKULARITZA:


HAZINNOVA: Urkome Hazinnova agentea da.


EKINTZAILATZA, FORMAKUNTZA ETA DIRU LAGUNTZEN KUDEAKETA.


 [Urkome Urola Kostako Lge](https://www.facebook.com/urkome)

 [urkome](https://www.youtube.com/urkome)

 urkome@orkome.eus

 [@urolakosta](https://twitter.com/urolakosta)

 [@urkome_lge](https://www.instagram.com/@urkome_lge)

 943816500

Plaza Nagusia, 11-1.solairua, 5.bulegoa
20730, Azpeitia